

5/2015, EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEAREN ARDATZAK

2015eko ekainaren 25ean, Eusko Legebiltzarrak, 5/2015, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko legea onartu du. Lege garrantzitsua da eta lehenengo irakurketa bat egin ondoren, jarraian aipatzen diren arloak azpimarratuko nituzke.

Euskal Herriko Agintaritzak aldizkarian argitaratzen denetik hiru hilabete igarotakoan indarrean jarriko da lege berri hau.

Lege honen Atariko Tituluan, Euskal Zuzenbide Zibilaren iturriak aztertzen dira. Askatasun zibilaren printzipioa, ardatz nagusi bihurtzen da lege osoan. Bestalde, lege honek dakarren berrikuntzarik nabarmenena euskal auzotasun zibilaren arauketan datza. Euskal auzotasun zibila, tokian tokiko auzotasunarekin bateragarria izango da, kasu zehatzetan aplikagarria izan daitekeena, adibidez tronkalitatean, beste herrialdetara zabaldu ez dena. Euskal auzotasun zibilari esker, lege berriaren jomuga Euskal Autonomia Erkidego osoan indarra izatea da eta euskal auzotasun zibila daukatenei aukera berriak ematea du helburu.

Ondareari buruzko zuzenbidearen printzipioak, I. Tituluan agertzen dira. Atal honen barruan aipagarriena sozietate zibilen arauketan aurkitzen dugu, baldin eta halakoak eratzeko kofradia, ermandadea edo mutualitate forma tradizionalak erabili badira ere. Sozietate zibil horiek, erregistro berezi batean inskribatzeko aukera izango dute, horretarako sortua izango dena, Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta inskribaturik egonez gero, nortasun juridikoa izango dute.

II. Tituluan “oinordetzak” arautzen dira. Idazkera berri bat eman da baina Bizkaiko eta Aiarako berezitasunak mantenduz.

Hilburuko testamentua (heriotza-arriskuan egindakoa) Bizkaiko Forutik, hiru lurralde historikoetara zabaltzen da.

Bestalde, “seniparte” bakarria ezartzen du lege berriak, ondarearen heren batena, Euskal Autonomia Erkidego osorako. Salbuespen bakarria Aiarako haranarekin egin da, testamentua egiteko orduan erabateko askatasuna gorde delako.

Testuak bizirik gordetzen du Bizkaiko lur lauan, eta Arabako Aramaio eta Laudio udalerrietan, hain errotuta dagoen “tronkalitatea” erakundea. Tronkalitatearen erregulazioa 61. artikulutik aurrera aurki dezakegu. Testu berriak eskubide honen egikaritzea argitu eta erraztu du eta, modu batean zein bestean, horren aplikazioetan gerta daitezkeen gehiegikeriak arindu. Adibidez, tronkaletik kanpo egindako ekintzetan deuseztasun erlatibo edo deuseztagarritasun mugatua bihurtzen da, eta Jabego

Erregistroan noiz inskribatu eta hurrengo lau urteetan, senide tronkeroek egintza horiek deuseztatzeko epea izango dute (69. artikulua arabera).

Alkarpoderoso edo komisario bidezko testamentua –oinarrizko osagaia dena Bizkaian oinordetzan-, oinordetza itunak, eta gipuzkoar baserriaren oinordetza ere arautzen dira, modu zabalean, titulu honen barruan.

III. Tituluan “ezkontzako ondasunen araubidea” arautzen da. Aukera askeko araubidea ezartzen da, bai ezkontza aurretik, nahiz ondoren. Hitzarmenik ezean, Kode Zibilak arauturiko irabazpideen araubidea izango da aginduzko. Salbuespena, 127. artikuluan, bigarren eta hirugarren ataletan aurkitzen dugu: ezkongaiak Bizkaiko Lur Lauko, Aramaioko edo Laudioko auzotarrak direnean, ezkontzari aplikatuko zaio, ituna egin ezean, ondasunen foru komunikazioari buruzko araubidea eta ezkontideetatik batek bakarrik badu, ezkontideen lehenengo eta ohiko bizileku erkideari dagokiona aplikatuko zaio, eta halako bizilekua izan ezean, ezkontza non egin eta toki horri dagokiona.

Lehenengo Xedapen Gehigarriak Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea sortzen du. Batzorde berri hau Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren kontseilu-organoa izango da eta gaiari buruz ikerketak, ebaluazioak sustatzea eta lege-aldaketak proposatzea izango du helburu.

Bukatzeko, lege honen asmoa ez da agortzea orain Euskal Foru Zuzenbide Zibilak izan zezakeen garapen-eremu guztia. Zuzenbide hori poliki-poliki hedatuko da Legebiltzarrak onesten dituen beste lege batzuen bidez eta baita ohituraren bidez eta Foru Zuzenbide Zibilaren printzipio orokorren bidez ere, zuzenbidearen iturri diren heinean. Beraz, bide berria hastea besterik ez da.